

EUSKADIKO DMD-DHEren BATZAR NAGUSI OHIKOAREN AKTA

EGUNA: 2018-05-05

ORDUA: 12 h.

LEKUA: Txara 1, Zarategi Pasealekua 100. Intxaurren (Donostia).

## **GAI-ZERREDA**

- 1. Azken batzarreko akta onestea**
- 2. 2017ko jardueren memoria**
- 3. 2017ko kontuak aurkeztu eta onestea, egoki joz gero**
- 4. Diruzaintzari buruzko erabakien gaineko informazioa**
- 5. 2018rako proiektuak**
- 6. Galde-eskeak**

23 bazkide bertaratu dira.

Bi boto ordezkatu aurkeztu dira, 245 eta 260 zenbakiko bazkideenak.

Concha Castellsek batzarkideak agurtu ditu eta, hasi aurretik, hitz batzuk esan ditu DMD Federaleko presidente zen eta berriki zendu den Luis Montesén ohoretan. Agur eta ohore nor bere bizitzaren jabe izatearen alde halako lan eskerga egin duenari; bere bidean aurrera egingo dugu. Ekainaren 2an Madrilén egingo den omenaldia iragarri da, eta bertara joateko garraioa antolatzea erabaki da.

## **Eztabaida eta erabakiak:**

### **1.- Azken batzarreko akta onestea.**

Aho batez onetsi da.

### **2.- 2017ko jardueren memoria.**

2017ko memoria irakurri eta onetsi da.

Bazkide-kopuruaren gorakada komentatu da; apal bada ere, goraka doa bazkideen kopurua.

### **3.- 2017ko kontuak aurkeztu eta onestea, egoki joz gero.**

Ernesto Alonsok aurkeztu ditu, Maribel G. Vallek ezin izan duelako parte hartu izan, arrazoi pertsonalak tarteko. Gastuei eta diru-sarrerei buruzko datu guztiak irakurri ostean, galderak egiteko tartea ireki da, eta zenbait zalantza argitu dira.

Aho batez onetsi dira.

### **4.- Diruzaintzari buruzko erabakien gaineko informazioa**

2018ko urtarriletik aurrera gure diru-kontuak DMD Federalera aldatzeaz hartutako erabakiaren berri eman da.

DMD Federalak egitura administratibo profesionala dauka, eta bera arduratuko da gure kontabilitateaz eta administrazioaz.

Hitzartu da 1.500-2.000 euroko saldo txiki bat izango dugula Euskadiko DMD-DHEko kontuan, gastu txikiei aurre egin ahal izateko. Saldo hori berri edo handitu egingo da behar den aldiro, baldin eta gastuak justifikatzen badira.

Akordioa urtero berriro da, automatikoki. Alde biek dute akordioa bertan behera uztea eskatzeko eskubidea, hala iritziz gero.

## 5.- 2018rako proiektuak

Ontzat eman da egindako lana, eztabaida egin da berari buruz eta zenbait jarduera-ildori buruz, eta erabaki da dagoeneko indarrean dauden lan-asmoekin jarraitzea, eta 2018ko azaroan Heriotza Duinaren Eguna ospatzea.

Are zehatzago, azaroaren 2an Euskadin heriotza duinaren egoerari buruzko adierazpen bat egingo da prentsan, eta bertan azaroaren 10ean (larunbata) Bilbon egingo den ekimena iragarriko da. Lantalde bat arduratuko da ekimen hori antolatzeaz.

Horrez gain, eta azaroaren 2ko ospakizunen testuinguruan, hiriburuetakoko 3 udalei heriotza duinaren aldeko jarrera agertzeko eta haren alde lan egiteko eskatuko zaie.

## 6.- Galde-eskeak

- a. Javier Velasco valentziarra da DMDko presidente izateko hautagaia.
- b. Maiatzaren 8an Zigor Kodeko 143. artikulua despenalizatzeko proposamen bat aurkeztuko da, Kataluniako Parlamentuak planteatuta.
- c. Darpónek eta Saralegik Aurretiazko Borondateen Agiria osasun-zentro guztietan egin ahal izateko aukera iragarri dute (alabaina, hori abiarazteko epea 2 urte barru AMAITUKO da). DMD-DHEk horretaz arduratuko diren langile-kopurua indartzeko eskaera egin dezala proposatu da.
- d. PSOEk Eutanasiaren aldeko Lege-proposamena aurkeztu du Parlamentuan.
- e. Webgunea aldaketa-prozesuan da; laster izango da prest DMD-DHEren atala. Orduetik aurrera atalaren arduradun bat beharko da.
- f. DMD-DHEren logo berria.
- g. Aurretiazko Borondateen Agiria (ABA) osasun alorretik kanpo egin ahal izatearen interesa, nola gizarte-zerbitzuetan, hala udal-bulegoetan.
- h. Barne-antolaketari dagokionez, honako aldaketa hau egitea erabaki da: Maribelek bere gain hartuko du Marianek arrazoi pertsonalengatik utziko duen idazkaritza, eta Ernesto diruzaintzaz arduratuko da.

O.E.: Euskadiko DMD-DHEko presidentea  
Concha Castells Carrillo

Izenp.  
Euskadiko DMD-DHEko idazkaria  
Marian Olea Retolaza